

“Hiri Lagunkoiak pertsona guztientzat”  
 egitasmoak **HERRITARREN KONTZIENTZIA**  
 piztu nahi du **HIRIKO IRISGARRITASUNAREN**  
 inguruan.

Nerabeek, aniztasun funtzionala duten pertsonak lagunduta, beren ingurunea mapatuko dute (eta OpenStreetMap-en partekatu). Ondoren, ingurune hori hobetzeko proposamenak aurkeztuko dituzte (irisgarritasun txosten bat eginez).

## Metodologia

GOGOETA  
 EKINTZA

**1** Aniztasun funtzionala duten pertsonak, hezitzaileek, boluntarioek eta DBHko ikasleek prestakuntza jasoko dute aniztasun funtzionalaren, gizarte inklusioaren eta OpenStreetMap tresnaren inguruan.




**2** Nerabeak eta aniztasun funtzionala duten pertsonak hirian ibiliko dira, elkarrekin.



**3** Sarbide zaileko tokiak, bide alternatiboak eta abar identifikatuko dituzte, argazkiak erabiliz, orientazioa landuz eta ingurunean moldatuz.



**4** Ondoren, udalerriko puntu horiek mapa batean jarriko dituzte, OpenStreetMap erabiliz. Software Libre horretaz baliatuz, mapa digitalak editatuko dituzte, geokopapenean oinarrituta eta puntu bakoitzeko semaforo kodeaz baliatuz. Datuak online argitaratutakoan, zuzenean Apean ikus ditzake edonork eta, horrela, mapetan “bide lagunkoiak” sortu ahal izango dira.



**5** Ikasleek irisgarritasun txostenak prestatuko dituzte herri administrazioarentzat eta beren komunitatearentzat. Haiek txostenaren inguruko iritzia eman ahal izango diete.



**6** Parte hartzaileek esperientzia aztertuko dute, banaka eta taldean.




## Aurrekariak

Ekimen hau 2012an sortu zen eta gero eta indar handiagoa hartzen ari da. Zerbikas elkarteak arduratzen da hasieratik erakunde/talde bakoitzarekiko harremanak kudeatzeaz. Sopelan, Zumaian eta Portugaleten egin dira horrelako esperientziak. 2015eko irailean, Portugaleteko Santa Maria Ikastetxeko 100 ikaslek parte hartu zuten ekimenean.

## Parte hartzaileak


Babesleak:



Udalerrriak eta ikastetxeak:



Desqaitasun fisikoren bat duten pertsonen elkartek:



# Pedagogia eta Gizarte Berrikuntza



## Diziplinartekotasuna

Hainbat irakasgarekin du lotura: Matematika, Etika, Euskara/Gaztelania, Informatika, etab.



## Herritarren parte hartzea eta zientzia

Emantzipazioa eta parte hartzea sustatzen ditu. Gazteek eta aniztasun funtzionala duten pertsonen elkarrekin egiten dute lan eta **gogoeta-ekintza** prozesuen protagonistak dira. Zientzia eta elkartasun bokazioak sustatzen ditu.



## Teknologia berriak erantzukizunez erabiltzea

Ikasleek hiria mapatzen dute OpenStreetMap erabiliz, hezitzaileen tutoretzapean. OpenStreetMap Software Libreko aplikazio bat da.



## Inklusioa sustatzea

Presentzia, parte hartzea eta ikaskuntza. Hezkuntza eta gizarte inklusioa. Gainera, "Jarri nire tokian" motako metodologiez baliatuz, parte hartzaile bakoitzak esperientzia beste ikuspegi batzuetatik bizi eta partekatuko du.



## Ahalduntzea eta konpromisoa

**Nerabeak** beren hiriko ingurunearekin eta antolaketa politikoarekin harremanetan jartzen dira, erakundeei hobekuntza arkitektonikoak proposatuko dizkietelako eta **aniztasun funtzionala duten pertsonen** berriz, bide lagunkoia. Aniztasun funtzionala duten pertsonen, bestalde, esperientzia honekin ikasi egiten dute, aholkulari lanak egiten dituzte eta zerbitzu bat eskaintzen dute, eskubide eta betebeharrak baitituzte, gainerako herritarrek bezala.



# Lekukotzak eta aitortzak

"Mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen hesi asko aurkitzen dituzte Portugaleteko kaleetan eta hasiera batean, ez nion garrantziarik ematen egoera honi. Proiektu honi esker konturatu naiz egoera hau aldatu egin beharko genukeela, guztiok baitugu eskubidea edozein ataritari edo dendatarari iristeko"

DBH 4ko ikaslea



"Diego jarraibide bat izan da eta izango da guztiontzat"

Javi Cueva (FEKOOR)

Esti Sánchez (Santa Maria Ikastetxea)



Portugaleteko Udala, Boluntarioritza Sustatzeko Laguntza (2014an eta 2015ean)

"Oso lan interesgarria dugu aurrean, ilusio handiz egitekoa".



Proiektu lehiakorra, FECYT-Zientzia eta Teknologiaarako Espainiako Fundazioa (2016), Zientzia bokazioak sustatzea



FEKOOR saria (2015) - IRISGARRITASUNaren kategorian, ikuspegi inklusiboan lantzeagatik



# Hiri LAGUNKOIAK

*persona guztientzat*



fundazioa  
**zerbikas**  
ikasketa eta zerbitzu solidarioa  
aprendizaje y servicio solidario

ciudadesamigables.org  
info@zerbikas.es  
618 15 92 69